



Leidorren hutsuneaz jakitun, balantze baikorra

TOLOSA ▶ Azken sei hilabeteotako kultur ekitaldien balantzea egin dute udal arduradunek

PARTE-HARTZEA ▶ Jaitsi egin da; «baina ikusi dugu Usabal egokia izan daitekeela», dio Iturzaetak ▶ 2

TOLOSALDEA-LEITZALDEA ▶

Hiru ordezkar berria Txapelketan

Aurrera-Saiaz, Aurrera Leitza, Zazpi-Iturri ▶ 5

Eginiko bidaiari Eujenia ardiak bizitakoak, haurrei kontatuta

VILLABONA ▶ Gar produkzioak taldeak 'Eujenia ardiaren bidaiak' haur antzerkia eskainiko du, etzi, Gureako taula gainean ▶ 4



TOLOSA ▶

Imanol eta Joseba Rojo eskiatzaileak Europako Kopan

Alpino Uzturre elkarteko gazteak maila ona ari dira ematen probetan ▶ 3

Joseba Rojo eskiatzailea. HITZA

HITZA



TOLOSALDEA ▶

«Independentziaren bidean pauso berria emateko», martxa

Villabona, Zizurkil, Anoeta, Tolosa eta Ibarra zeharkatuko ditu aldarriak ▶ 3

TOLOSALDEA ▶

Tortura salaketa berretsi du Txapartegik

«Torturaren praktika» gaitzetsi du ▶ 4

LEITZALDEA ▶

Bai Euskarari Ziurtagiria dutenen zerrenda, argitara

Jarraipen Batzordeak, «elkarren berri izanez, elkar laguntzeko» xedez ▶ 7

KULTURA ▶

«Ahaleginduko gara gero eta ikuskizun hobeak ekartzen»

Azken sei hilabeteetako kultur ekitaldien balantzea egin dute udal arduradunek; «baikorra» da orokorrean, baina Leidor itxita izateak jaitsi egin du parte-hartzea



Ezkerretik: Angel Alonso, Jokin Monfort, Andoni Iturzaeta eta Jokin Ansorena, atzo, Kultur Etxean, kultur balantzea egiterakoan. NOELIA LATABURU

IRATXE ETXEBESTE

«Leidor aretoko berritze lanak hasi zirenetik itxita egon da herriko areto handiena eta sonatuena, baina erronka horri ondo egin diogu aurre kultur jarduerak beste leku batzuetara aldatuta». Gisa horretara eman zion hasiera atzo Tolosako Udaleko Kultur eta Festa zinegotzi Andoni Iturzaetak azken sei hilabeteetako kultur ekitaldien balantzea egiteko Kultur Etxean antolatuta zuten prentsaurrekoari. «Leidor itxita izateak erakutsi digu Usabal kirol eta aisialdi gunea egokia izan daitekeela askotariko ekintzak egiteko».

2005ean antolatutako kultur ekitaldi gehienak «oso ondo» atera zirela, eta aurrera begira udal arduradunek «gero eta ikuskizun hobeak ekartzeko bidean lanean jarraituko» dutela adierazi zuten ekitaldira

bilgutakoek. Jokin Ansorena kultur teknikariaren esanetan, «oraindik badira jendearen arreta gehiegi pizten ez duten jarduerak». Aranburu Jauregian jartzen dituzten erakusketak dira horren adibide. «Kalitate handikoak ekartzen ditugu, baina askok ez dute espero dugun jende kopurua biltzea lortzen».

Hori dela-eta aukera ezberdinak ari dira aztertzen udal arduradunak. Izan ere, eta helduen liburutegia «txiki» geratu denez, egun Aranburu Jauregian dauden erakusketarako bi solairuetatik bat liburutegi bilakatuko dutelakoan daude; modu horretara, erakusketa gunea azpialdeko solairuan jarriko lukete eta liburutegiak bi solairu izango lituzke. Aurten izandako erakusketa guztietatik bi nabarmendu nahi izan dituzte: Irazki elkartearen *Ipui-nArtean* eta TEE, Tolosa Ekin-

bide Etxeak urtero jartzen duen Txotxongiloen Jaialdikoak.

Hurrei zuzendutako programazioa «sendotuta» dagoela uste dute, bestalde, udal arduradunek. «Bi apustu egin ditugu azken urteetan: batetik, Galtzaundi Euskara Taldearekin poesia errezitaldian kolaboratzea, eta, bestetik, Ipar Euskal Herriarekin elkarlan bideak zabaltzea». Iturzaetak dio ildo beretik jarraitu nahi dutela aurrerantzean ere, «emankorrek direlako elkarlan horretatik ateratako fruituak».

Euskal Herria plazan egin asmo duten tamaina erdiko ikuskizunetarako aretoa Tolosan «behar-beharrezko» dela iritzita, proiektu hori honezkerro abian dela iragarri zuten atzo. Txotxongiloentzako Zentro Iraunkorraren alboan egongo da areto hori, eta egun «zentzu horretan dagoen hutsunea» beteko du. Abastos pla-

zako merkatu gunean kafe-antzoki modukoa jartzeko borondatea ere azaldu zuten udal teknikariek atzokoan.

Leidor zinema aretoko lanei ekin, eta kultur jarduerak Kultur Etxean egiten hasi zirenetik ikuskizun eszenikoak «jaitsi» egin direla onartuta, Leidorren hutsunea «ahalik eta ondoen betetzen ahaleginduko» direla zioten udal teknikariek: «Kopuru txarrak ez dira, hala ere».

Ez da gauza bera gertatu Haur Liburutegiarekin. «Errotan dagoenetik izugarri igo da maileguen kopurua». Gero eta erabiltzaile gehiago ditu Haur Liburutegiak, hortaz. Ezin gauza bera esan liburutegi orokorrenekin. Izan ere, eguneko «15 mailegu baino ez» dira egiten Aranburu Jauregian, eta «oso kopuru txikia» da hori.

Aranburu Jauregia eta Errota dauden lekuan parke arkeologikoa berreskuratu izana bai-

ANDONI ITURZAETA KULTUR ETA FESTA ZINEGOTZIA

«Leidor itxita izateak erakutsi digu Usabal kirolgunea egokia izan daitekeela askotariko ekitaldiak egiteko»

JOKIN ANSORENA KULTUR TEKNIKARIA

«Oraindik badira jendearen arreta pizten ez duten ekitaldiak; Aranburu Jauregiko erakusketak, kasu»

korra dela diote udal arduradunek. «Lehen baztertua zegoen inguru hori, eta orain gero eta herritar gehiago hurbiltzen dira bertara; panel informatibo batzuk jartzea falta da, jendeak azalpenak uler ditzan».

Jaiak hobetzeko ahalegina

Joan den urteko jaietako balantzea ere egin zuten atzoko prentsaurrekoan, eta orokorrean balorazio «baikorra» egiten badute ere, festak hobetze aldera Udalak ahalegina egingo duela nabarmendu nahi izan zuten, iaz saiakera hori «nabarritu» egin zelako. «Aurretik zetozen hainbat arazori aurre egin genien, besteak beste, jaietako aurrekontuak igoz, txosnagunearen eta barraken errota sistema aplikatuz eta karrozetarako eta konpartsetarako lehiaketako dirua parte-hartzaile guztientzako dieta bilakatuz».

Errotazio sistemari jarraiki, Inauterietan barrakak Artxiboren atzealdean jarriko dituzte aurtengoa; txosnagunea Euskal Herri plazan, eta Geltokialdea hutsik geratuko da. «Karrizak eta konpartsak, moztarrok eta musika dira Inauterietan zutabe, eta diruz laguntzen jarraituko ditugu ekimen horiek. Karrizak-eta gordetze-ko leku hobeagoen bila ere jarraituko dugu», esan zuten aurkezpena bildutakoek.

hitza **txokoa** ^{lagunen}

Egin zaitez harpidedun!

▶ 45 €-ren TRUKE, HITZA egunero jasotzeaz gain, HAINBAT ABANTAILA izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶

«Independentziaren bidean pauso berria» emateko martxa, bihar

Villabonako Berdura plazatik abiatuko da 15:00etan eta ekintzak egingo dituzte Zizurkil, Anoeta, Tolosa eta Ibarra



Herenegun aurkeztu zituzten martxaren helburuak Tolosan. HITZA

NOELIA LATABURU

Urriari Segik Euskal Herria osoan martxan jarri zuen *Borrokaz aske biziz independentzia* kanpainaren harira, bihar *Tolosaldeko gazteria independentziara martxan* lelopean martxa antolatu du Tolosaldeko Gazteriak. Herenegun burutu zuten aurkezpen ekitaldia Tolosako Kultur Etxean, eta bertan azaldu zituzten martxaren nondik norakoak. Eskualdeko hainbat herri zeharkatuko ditu martxak. Horrela, Villabonako Berdura plazatik 15:00etan abiatuko da; ondoren, Villabona, Zizurkil, Anoeta, Tolosa eta Ibarra igaroko ditu. Herri bakoitzean «euskal gazteriarren eta Euskal Herriaren egoera islatzen» dituzten ekintza ezberdinak egingo dituzte, esaterako, «etxebizitzaren, proiektu txikitzaileen eta hezkuntza sistemaren inguruan».

Ibarrara heltzean, berriz, martxari amaiera emango dio-

dez aurretik salgai daudela jakinarazi dute, Alegiako Iskiña tabernan, Tolosako Raku tabernan, Villabonako Iratzarren eta Ibarra Atarin. Afarira ez baina kontzertura joan nahi duenak aukera izango du sarrera berezia lortzeko egunean bertan, Gaztetxean.

Gazte guztientzako deia

Gazteria kolektiboak Tolosaldeko gazte guztiei dei egiten diote «independentziaren bidean gazte indarrak batu eta aurrerapauso honen lehen harriak» denek bihar burutuko den *Tolosaldeko gazteria independentziara martxan* lelopeko martxan parte har dezaten. Horretarako hamaika arrazoi azaldu zuten herenegun egindako agerraldian: batetik, «Espainiak eta Frantziak gure herria zatitu eta ukatzen dute eta, hauek mantentzeko, zapaldu eta errepresioa egiten digute mugimendu, herritar eta gazteoi. Espainiar eta frantziar egin gaituzte, euskal herritar izan eta hala bizitzea debekatu eta zigortuz». Bestetik, «esplotazioa» ekarri dutela adierazi dute. Halaber, «esplotazioaz bizi den kapitalismoa ekarri dute: lurraren esplotazioa, natur baliabideen esplotazioa, langile eta emakumeen esplotazioa», besteak beste. Beste arrazoi batzuen artean «botere ekonomikoa eta botere politikoa» azaldu zituzten; izan ere, «hauek dira euskal gazteria zapaldu eta era guztietako errepresioa eragiten dutenak».

AFARI-KONTZERTUA

Xepla elkartearen eta Ibarra Gaztetxean izango dira; sarrerak salgai Iskiñan, Rakun, Iratzarren eta Atarin

te. Honen ostean, herriko kaleak zeharkatuko dituen manifestazio bat izango da herriko plazatik, 20:00etatik aurrera. Orain dela ia lau urte Espainiako Poliziak atxilotutako eta egun epaiketaren zain dauden eskualdeko zortzi gazteei «elkartasuna adierazi eta euskal gazteriarekin errepresioaren bidea antzua dela gogor ohiukatuko» dute manifestazioan. Eguna «jai giroan bukatzeko», afaria izango da Xepla elkartearen eta, ondoren, Potemkin taldeak kontzertua eskainiko du Ibarra Gaztetxean, beste talde batzuekin batera. Afari-kontzertu honetarako sarrerak al-

TOLOSA ▶ ESKIA

Imanol eta Ioseba Rojo, Europako Kopan

10 km klasiko eran eta 15 km skating eran lehiatu dira; hilaren 21ean ere ariko dira



Joseba Rojo eskiazailea bi probetan aritu berri da Tirolen. HITZA

ERREDAKZIOA

Tolosako Udalak kirolari onei egindako omenaldi ekitaldian proiektatutako bidean Ioseba Rojok 2006rako zuen helburuetako bat Europako Kopako iraupen eskiko probaren batean parte hartzea zela esan zuen, eta egun gutxi barru amets hori bete ahal izan du. Horrela, bere anaia Imanolekin, iragan asteburuan, Austriako Tirol eskualdean kokatzen den St Ulrich Am Pillersee herrian, bi lasterketetan parte hartu ahal izan zuten, 10 kilometro klasiko eran eta 15 kilometro skating eran, Espainiako Federazioak aukeratutako 4 mutilen artean. Etorri berriak, «emozioz beterik», han aurkitu duten kirol maila altua, zirkuito gogorra eta polita, giroa, antolaketa profesionala azpimarratu dute, besteak beste.

Eta datorren asteburuan, hilaren 21 eta 22an, Ioseba Rojok Frantziara izango den beste probetan parte hartuko du. Asteburu berean, hain zuzen ere, Imanol Rojo, Erlantz

Gonzalez eta Xabier Saizar tolosarrak Italiako Lago di Teseron (Dolomiti) egiten den Topolino Trofeoan parte hartzeko aukeratuak izan dira, gaztetxoaren mailan Europan egiten den probarik garrantzitsuena, alegia.

Europako proba hauetan parte hartzeko aukeratuak izateko, udan eta udazkenean izandako kontzentrazioetan bere ahalmena erakutsi behar izan dute eskiazaileek, eta iragan abenduaren 18an, Candanchun (Espainia) jokaturako Iraupen Eskiko denboraldi klasiko eran eta 15 kilometro skating eran, Espainiako Federazioak aukeratutako 4 mutilen artean. Etorri berriak, «emozioz beterik», han aurkitu duten kirol maila altua, zirkuito gogorra eta polita, giroa, antolaketa profesionala azpimarratu dute, besteak beste.

Eta datorren asteburuan, hilaren 21 eta 22an, Ioseba Rojok Frantziara izango den beste probetan parte hartuko du. Asteburu berean, hain zuzen ere, Imanol Rojo, Erlantz

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK Telf.: 943 65 56 95
19:00ak arte hartzen dira tolosaldean@tolosaldeko hitza.nfo

hilberria ▶



Alvaro Garcia Fernandez



Maita zaitugulako
gurekin zaude.

Gurekin zaude betirako

Largaitz Ikastolak



VILLABONA ▶ ANTZERKIA

'Eujenia ardiaren bidaiak' antzezlanak, etzi Gurea aretoan

Gar produkzioak taldeak eskaintzen duen eta bereziki haurrei zuzenduta dagoen antzerkia 17:00etan hasiko da

ERREDAKZIOA

Gar produkzioak taldeak *Eujenia ardiaren bidaiak* antzezlanak eskainiko du, etzi, Gurea aretoan, 17:00etatik aurrera. Euskaraz izango da antzerkia eta sarrerak lau euro balio ditu. Villabonako Udalak haurrentzako prestatu dituen egitarauaren baitan kokatzen da emanaldia.

Koloreen bila dabilen marrazkilari baten istorioa kontatzen du antzezlanak. Marrazkilaria ari da pinta eta pinta hiri gris bateko terraza hormetan. Haztarrika dabil eskuak hodei grisaren artean sartuta eguzkiaren bila, koloreak topatuko dituelakoan.

Saiakera horretan ari dela, marrazkilariak Eujenia ardiaren bisita jasoko du. Denbora dezente darama bidaiatzen Eujeniak: larreak zaharkatzen, erretrak, kaleak, parkeak, ibarreak, terrazak... Nekatuta dago, eta siestatxoa egitea pentsatzen du marrazkilariaren terrazan.



Eujenia ardiaren bidaiak antzezlanaren une bat. HITZA

Garbiñe Tolosak sortutako istorioa da, eta bera eta David Bernues dira aktoreak. Rosa Diaz da zuzendaria eta Patxi

Larrea zuzendari laguntzailea. 45 minutuko iraupena du antzezlanak eta bereziki haurrei zuzendutako obra da.

'18/98 AUZIA' ▶



Txapartegiri (erdian) babesa eskaini zioten, atzo, Madrilén. HITZA

Txapartegirik tortura salaketa berretsi du

Bere kasua ez ezik «orokorrean torturaren praktika» salatu du asteasuarrak

I. GARCIA

Nekane Txapartegi asteasuarrak tortura salaketa berretsi zuen atzo, Madrilén, Plaza de Castellako epaitegietan. «Epaileak bere bulegoan hartu dit eta idatzizko deklarazioa berresten nuen galdetu dit eta nik baiezkua eman diot», azaldu zion HITZARI Txapartegik, eta gaineratu: «Gaztelaniara egindako itzulpena laburtuta zegoenez, bost eguneko inkomunikazioan jasandako kalbarioaren zehaztasun gehiago eman dizkiot».

Nekane Txapartegi 18/98 auzian Xaki atalean inputatuta dago, eta 18/98+ platafor-

mako kideen elkartasuna jaso zuen atzo. «Nire kasua ez ezik, orokorrean torturaren praktika» salatu nahi zuela adierazi zuen asteasuarrak: «Tortura erabiliz sumario asko sortu dira eta gero Audentzia Nazionalak lana amaitzen du euskal herritarrek espetxeratu zuten».

Bestalde, Txapartegi eta berarekin zeuden senitartekoak eta lagunak bi aldiz identifikatu zituen Espainiako Poliziak, epaitegira sartu aurretik eta handik atera ondoren. «Terrorismoaren aurkako kontrola egiten ari zirela erantzun digute identifikazioaren zergatia galdetzean», azaldu zuten.

Zatoz
larunbatean!
hilak 14, 17:00etan,
Tolosako Berdura Plazan
gingo den
jaialdi-meriendara!

Nola ikusten duzu zure herria?

HITZAK eta Tolosako Alde Zaharreko Merkatariek

zuen marrazkiak
saritu nahi dituzte



- BAZAR AMIANO KORREO, 44
- DAKARO KORREO, 50
- MAITE GOXOKIAK KORREO, 19
- IRURA OKINDEGIA KORREO, 50 (kaletartean)
- ALTUNA HARATEGIA KORREO, 44
- SUKIA HARATEGIA KORREO, 39
- LA CASA AZUL KORREO, 21
- OGI ONA KORREO, 37
- NOOR KORREO, 16
- EZEIZA GOZOTEGIA RONDILLA, 34

- SHANTI KIROLAK
- BERMUDEZ FRUTATEGIA
- MUÑAGORRI HARATEGIA
- KINU
- ALEJANDRO GOYA HARATEGIA
- XIRIMIRI TXOKOLATEGIA
- INTERFILM
- LIZARRALDE HARATEGIA
- BILINTX LIBURUDENDA
- ZUNBELTZ DISKAK

- RONDILLA, 11 Bis
- RONDILLA, 19
- RONDILLA, 5
- RONDILLA, 17
- RONDILLA, 23
- ERREMENTARI, 40
- ERREMENTARI, 44
- ERREMENTARI, z/g
- AROSTEGIETA, z/g
- AROSTEGIETA, 9

- GORROTXATEGI GOZOTEGIA PLAZA ZAHARRA, 7
- ARANBURU LIBURUTEGIA SOLANA, 7
- OGI-BERRI ESKOLAPIOETAKO LORATEGIAK, 1
- OGI BERRI NAGUSIA, 13
- NATURAL BODY - B. COLLADO NAGUSIA, 25
- KIMETZ NAGUSIA, 23
- GORROTXATEGI DIETETIKA NAGUSIA, 2
- PIRULO'S LEITZA z/g
- EDEL LIBURUDENDA LEITZA z/g
- EL BACALAO GOXOKIAK KORREO, 51 (KALETARTEAN)
- ALDE ZAHARREKO OSTALARIEN ELKARTEA

HITZA eta Tolosako Alde Zaharreko merkatariek elkarlanean antolatutako ekimena da.

ALBIZTUR ▶

Aurtengo jaien inguruko lehen bilera, gaur

Gaur, Albizturko Kultur Etxean elkartekoak dira herriko festetako gai buruz hitz egiteko eta proposamenak egiteko. Hain zuzen ere, herriko Jai Batzordeak aurtengo festak antolatzen hasteko deialdia egin du. 20:00etan da hitzordua, Kultur Etxean.

AMEZKETA ▶ PILOTA

Zazpi-Iturri, Euskadiko Liga txapelketan

Zazpi-Iturri pilota eskola larunbatean hasiko da Euskadiko Txapelketa jolasten. Amezketako eskolako kadete, gazte eta nagusien mailetak bost taldek hartuko dute parte bertan. Amezketan jokatuko dituzte, alde batetik, 17:00etan, gazteak eskuz binaka (Elurbe-Beloki), eta 17:30ean nagusiak eskuz binaka (Baez-Garmendia). Goizean ere hainbat partida jokatuko dituzte taldekoek, baina Berrizen (Sukia kadeteak), Gasteizen (Baez alde batetik, eta binaka Ropon-Legarreta), eta Lezaman (nagusien mailan, Baez-Garmendia).

IKAZTEGIETA ▶

Zabor bilketa tasa erronda onartu egin dute

2005eko bigarren seihilabeteke zabor bilketa tasari dagoen erronda onartu du Udalak, eta dagozkion ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko jarri dituzte. Ordaintzeko epea gaurtik otsailaren 13ra izango da, lanegunetan, eta banketxeetan edo Udaletxean egin ahal izango dira. Helbideratuta dauden ordainagiriak, bestalde, otsailaren 13an kobratuko dituzte.

POLITIKA ▶

Bide Eginez prozesuari buruzko bilerak

Batasunaren Bide Eginez prozesuaren baitan batzarrak burutuko dituzte eskualdean, asteburu honetan. Anoetan, bihar izanen da hirugarren batzarra, 10:00etan, udaletxean, honako gai zereendarekin: Bide Eginez lehen nazio biltzarren txostenaren balantzea, jasotako ekarpen nagusien azalpena eta bozketa, Mahai Nazionalako hautapena eta herri batzarraren balantzea. Zizurkilen, Iriarte etxean, bihar ere 10:00etan izango da batzarra. Lizartzan ere bihar izango da batzarra, udaletxean, 16:00etan. Jorratuko dituzten gaiak ondorengoak izango dira: Batasuna aurrera, ekarpenen bozketa eta Mahai Nazional berriaren aukeraketa. Asteasuko bilera 11:00etan izanen da, egun berean, baina Kultur Etxean. Amezketan igandean elkartuko dira batzarrean, 12:00etan, balio anitzeko gelan. Orendainen, 11:00etan izanen da, igandean ere, herriko udaletxean.

ALEGIA ▶

KZguneko tutorearen bisita

Gaur, hilak 13, KZguneko tutorearen aurtengo lehenengo bisita izango dute Alegian, 16:00etatik 20:00etara. Egun berean, *Komunikatu posta elektronikoaren bidez* mintegia jorratuko du, 17:00etatik 19:00etara bitartean.

PILOTA ▶



Lehenengo urtean Berria Txapelketan aritutako eskualdeko pilotari batzuk. NOELIA LATABURU

NEREA URBIZU

Asteburu honetan emango diote hasiera Berria Pilota Txapelketari. Hiru urte bete ditu dagoeneko Euskal Herri osoko taldeei zuzendutako txapelketa honek, eta Tolosaldeak eta Leitzaldeak ere izanen du ordezkari bertan: Amezketako Zazpi-Iturri, Tolosa eta Bidegoiango Aurrera-Saiaz, eta Leitzako Aurrera Leitza, hain zuzen ere. Aurten, orotara, 24 talde elkartu dira, horien artean Gipuzkoako 8 eta Nafarroako beste 8.

Eskualdekoek ez dute jokatu lehendabiziko jardunaldian, baina laster iritsiko dira haien hitzorduak. Leitzako pilota eskola izango da, hain zuzen ere, lehena txapelketari ekiten: hilaren 21ean jokatu du Aurrera Leitza Hernanin, Andazpe Peña Pagola Usurbilgo eskolaren aurka. Aurrera-Saiazeko ordezkariak, berriz, hilaren 22an hasiko dira txapelketan lehiatzen, eta Oizpe-Berrizko taldea izanen dute aurrez aurre. Altzako pilotalekuan, Zazpi-Iturri pilota eskola, azkenik, Lasarteko Intza taldearen aurka lehiatuko da; martxoaren 4an izango dute amezketarrek lehendabiziko lehia.

Ez da eskualdean partida hauek ikusteko aukerarik izanen; izan ere, denak Hernaniko eta Altzako pilotalekuetan jokatuko dira. Tolosan jokatu nahi izanez gero baimen berezia eskatu behar dute alde aurretik eta jaialdia erosi behar dute horretarako, frontoiak be-

Eskualdekoak, Berria Pilota Txapelketan

Aurrera-Saiaz, Aurrera Leitza, eta Zazpi-Iturri taldekoak ariko dira

har dituen ezaugarriak betetzeaz gain, noski.

Txapelketa honen ezaugarrietako bat da tanto gehien egiten duen pilota taldea dela garaile, eta ez partida gehien irabazten dituen. Binaka jokatzen den txapelketa honetan eskola bakoitza behartua dago hiru bikote aurkeztera, hirurak maila edo adin ezberdinetakoak: kadete bikote bat, jubeniletako beste bat eta seniorreko beste bat.

Zazpi-Iturriren kasuan kadeeteetan Iker Iraola eta Beñat Arzelus pilotariak ariko dira. Jubenilen mailan Ibai Ropon eta Unai Legarreta izango dira amezketarren ordezkariak, eta senior mailan Koxme Elurbek eta Unai Garmendiak jokatu dute. Gogoratzekoa da lehenengo urtean Berria Txapelketan eskola hau txapeldun atera zela, hiru bikoteen artean puntu gehien lortu izateagatik. Beste bi taldeek oraindik ordezkariak ez dituztela guztiz erabaki

adierazi diote HITZARI, eta laster horren berri emango dutela gaineratu.

Orain arte Hernani, Altza, Usurbil eta Urnieta aritu dira antolaketa lanetan, baina azken biek kale egin dutenez, lehenengo bien esku geldituko da. Honen ondorioz, murrizketak eragin dira, hori parte-hartzaile kopuruan nabaritzen sarien kopurua ere murriztuz. Dena dela, lehenengo zortzi taldeek saria dirutan eskuratuko dute. Lehen kanporaketa otsailaren 5ean amaituko da, bigarrenak otsailaren 11tik martxoaren 5era iraungo du. Final-laurdenak eta finalerdia amaituta, apirilaren 1ean izango da finala, Hernanin.

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
MERKEALDIAK
Arostegieta kalean • TOLOSA

TOLARE-SAGARDOTEGIA
SARASOLA
Larunbata eta igandetan eguerdian irekita
Inaugurazioa:
TRIKITILARI ETA BERTSOLARIAK

Jatorrizko Sagardoa
Sagardotegia - ASTEASU
Tel.: 943 69 02 83
Zumalillardil Baserría - ANOETA
Tel.: 943 65 26 22

Urtarrilak 14ean Txotx garaiari hasiera emango zaio.

ISASTEGI
sagardotegia

Larunbat eguerdian irekita

Isastegi Sagardotegia, S.L.
Aldaba-Txiki auzoa, 15 A - TOLOSA
Tel.: 943 65 29 64

IBARRA ▶ GIZARTEA

Laguntza mundu osora zabalduz

Euren ekimenetan parte hartzeko ateak zabalik ditu Ibarrik Misio taldeak

IÑIGO TERRADILLOS

Iaz Ibarrik Misio Taldea izenarekin GKE nortasuna hartu bazuen ere, 1997. urtean hasi zen lanean irabazi asmorik gabeko erakunde katoliko hau. Ordutik izan duen helburu nagusia Hirugarren Munduko behartsuenekin euren izatea eta laguntasuna elkarbanatua bizitzea izan da. Hala, urtean lurralde desberdinetan banaturiko proiektuak izaten dituzte; iaz lortutako laguntzekin, esaterako, Santa Rosa (Ecuador), Hal-hal (Eritrea), Mumbai eta Gujerat (India) eta Suyapa-ra (Honduras) bideratuko dituzte laguntzak. Proiektu horiekin bertako he-

rritarren giza, heziketa eta osasunaren garapena bultzatu nahi dute.

Haur behartsuen heziketarako ikastetxe eta jantokiak, osasun zerbitzua eta sendagaiak, granja, aroztegia eta lurrik lantzea, emakumeen alfabetatzea, ebangelizazio taldeentzat tailerrak, behar duten familientzat etxeak dira, besteak beste, elkartearen laguntzarekin gauzatzen direnak. Eta horiek guztiak gertutik ikusteko aukera ere izan dute elkarte kideek bisitaldiak egiten baitituzte laguntza bideratzen duten lekuetara. Joan direnen artean, elkarteak egun misioetan dauden Joxe Mari Garmendia eta Izaskun Azurmendi ibartarrak azpimarratu ditu, «lan handia ari baitira burutzen».

Haurrak besoetako hartu

Bestalde, diruz laguntzeaz gain, Misio Taldeak haurrak besoetako hartzeko aukera ere eskaintzen du, eta jadanik eskualdeko hainbatek egin du eskaria. Indiako Mumbai eta Gujerat eta Honduraseko Suyapan bizi diren haurrak dira, hain zuzen, modu horretan lagundu ahal daitezkeenak. Elkartekoek azaldu dutenez, haur horien heziketa maila eta bizimodua hobetzea bermatzen da ekimen horrekin; izan ere, «asko dira kalean miseriaren eskuetan abandonua dutenak». Hori dela eta Ibarrik Misio Taldeak urtean 150 euroko laguntza eman eta haurrak besoetan hartzeko proiektuan parte hartzeko gonbita luzatzen die herritarrei.

Halaber, Misio Taldeko ordezkariak elkartearen bertan parte hartzeko gonbita luzatzen diete euren asmoekin bate egin nahi duten herritar orori, «urtean zehar hainbat ekintza eratzeko, misioetara joan nahi duten gazteei bideak irekitzeko, herritarren solidaritate sentibiliaioa bizkortzeko eta taldekideen artean Ebangelio espiritu eta balioak bizi eta ospatzeko». Edozein informazioarako 650 41 69 49 edo 676 62 39 90 zenbakietara hots egin daiteke.



Tailerrak egiteko aukera dute elkarteak bidalitako laguntzekin. HITZA



Haurren heziketa eta osasuna bermatzea da helburuetako bat. HITZA



Emakumeen alfabetatzea eta formazioa bideratu nahi dute. HITZA



Merkatu Txikian lortutakoarekin gustura dago elkarteak. HITZA

IBARRA ▶

Zikloturista taldeak bilera egingo du gaur

Gaur, 20:00etan, Ibarako Zikloturista Taldeak Benito Izagirre Kultur Etxean bilera egingo duela jakinarazi du. Federatuen lizentziak, asteburuetako ibilaldiak eta taldeko arropa egiteko aukera izango dira, besteak beste, bertan jorratuko dituzten gaiak.

VILLABONA ▶

Behar-Zanakoen partida gaur 22:00etan

Villabonako Behar-Zana elkarteak Udaberri eskuz binakako Pilota Txapelketaren partida jokatu du gaur. Lehen mailako afizionatuen partida hori Amasako Udaltaldekuan izango da, 22:00etan. Behar-Zana taldeak Lizaso eta Iraeta bikotea ariko dira. Azpeitiko Ilunpe taldeko Odriozola-Odriozola bikotearen aurka.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernialde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun etxea: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Orea. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.
 - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzioz klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ DYA: 672536
 - ▶ Gurutze Gorria: 674888
- ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
- ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

- ▶ Renfe: 902 24 02 02
- ▶ Donostiako autobusa: 361740
- ▶ Tolosaldea bus: 650621
- ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
- ▶ Taxia: 670420
- ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

- ▶ Ertzaintza: 538820
- ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
- ▶ Tolargi: 650016
- ▶ lurramendi egoitza: 670325
- ▶ Tolosa gasa: 675320

«Emitza onak»

Pasa den abenduan egin zuen Ibarrik Misio Taldeak Merkatu Txikia, eta «oso arrakastatsua» izan zela azaldu dute antolatzaileek. Hala, asko izan ziren aurrez materiala uztera joan zirenak, eta baita hilaren 11tik 18ra erostera merkatura gerturatu zirenak ere. Ondorioz, 5.600 euro bildu ahal izan dituzte Honduras, Ecuador, Mumbai eta Eritrean dituzten proiektuak laguntzeko.

Horretaz gain, Eguberrietan parrokiako korua hainbat herritarrekin kalera irten zen kantatzera, ateratako dirua proiektuetara bideratzeko. Kasu honetan ere herritar ugari lagundu zuen, eta diruz bete ahal izan zuten balkoien azpian jartzen zituzten oihalak, 1.500 euro denera. Beraz, bi ekimenetan lortutakoa batuz, 7.100 euro bildu ditu Ibarrik Misio Taldeak. Laguntza bideratuko duten lekuen eta bertakoen izenean elkarteak eskerrak eman nahi dizkie era batera edo bestera parte hartu duten herritar guztiei; izan ere, «laguntza hori gabe ezingo genuke aurrera egin gure helburuetan». ◀

EUSKARA ▶

Bai Euskarari Ziurtagiridunen zerrenda argitara eman berri du Jarraipen Batzordeak

«Elkarren berri izanez, elkar laguntzeko» helburuz egin du honako esku orria; Bai Euskarari ardatz hartuta, hileroko ekimenen bat egingen dute batzordekideek



Uztailan jaso zituzten Bai Euskarari Ziurtagirak Leitzako eta Aresoko 52 erakundek; zerrenda eskuorrian argitaratu dute orain. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Bai Euskarari Ziurtagiriaren Jarraipen Batzordeak, Leitza, Areso, Goizueta eta Arano herrietan jarduten duenak, lau herrietako ziurtagiridunen zerrenda argitaratu berri du,

esku orri batean, eta eragile horiei guztiei helarazi die.

Kontseilua 2004. urtean hasi zen Leitzaldeko Euskara Zerbitzuaren eskutik lau herrietan Bai Euskarari Ziurtagiriak banatzeko ekimenarekin. Orduz geroztik herrietako hainbat eta

hainbat eragilek, gizarteko arlo desberdinetakoak guztiak, euskararen normalizazioaren bidean, bakoitzak, euskararen erabilpen mailaren arabera, zegokien ziurtagiriak lortu zituzten eta epe berrirako konpromiso zehatzak hartu. Horre-

la, ordutik urtez urte ziurtagiriak berrituz doaz, eta euskararekiko hartutako konpromisoak betez eta finkatuz ere bai. Bide horretan lagun dute Bai Euskarari-ko Jarraipen Batzordea, euskara teknikariarekin batera, lau herrietako eragile-

en eta ziurtagiridunen ordezkari ez osatutakoa dena.

Hala, Jarraipen Batzordeak 2005ean Ziurtagiriak berritu zituzten eragileen zerrenda helarazi die ziurtagiridun guztiei «euren bezero eta kideei banatzeko», azaldu dutenez. Eskuorriaren alde batean Goizueta-koen eta Aranokoen zerrenda heldu da (24 eragile); beste aldean, Leitzakoak eta Aresokoak (52 eragile). Ekimen hau «mesedegarrria» izanen delakoan dago Batzordea. «Herriarrek euskararekin konprometitzen den jendea kontuan hartu dezaten» egin dute: «Horixe da Kontseiluaren leloa ere, *Kontuan hartu euskararekin konprometitzen dena*, eta guk bide hori zabaltzea aukeratu dugu», azaldu dio HITZARI Maider Gofiri euskara teknikariak.

Elkar ezagutzeko

Ziurtagiridunek elkar ezagutzeko ere beharrezko dela iritzi dio, «elkarren berri izanez, sektore berekoek edo bestelakoek ere bai, konpromisoak betetzeko urratsetan zailtasunak-edo izanez gero, esate baterako, besteari galdetuz irtenbideak bila daitezke, akaso hark ere ateka berarekin egin zuen topo. Zerrenda, horretarako ere bada», baieztatu zuen.

Katalogo honekin hasi eta aurrerantzean, hileroko maiztasunez, Bai Euskarari-rekin ikustekorik duten ekimenak egitekoasmoa dute: «Herrian, irradian, Marmari aldizkarian, ikastetxeetan...», teknikariak azaldu zuenez.

LEITZA ▶ FUTBOLA

Sailkapenean buru egonik, azkeneko lekuetan doan Kasedano hartuko du

Aurrerak igandean duen partidua alde handitzeko baliatuko du

J. ASTIBIA

Igandean, 15:45ean, Arkixkilan du hitzordua egina Aurrerak: Beti Kasedano izanen du aurrean.

Azaletik ikusita, hasieran behinik behin, etzikoak partidu erraz samarra izan litekeela esan daiteke, Aurrera dagoen bezala kontuan hartuta, hots, bikain. Dagoeneko bigarren itzulian da Liga eta sekulako martxan ari dira Leitzakoak, partiduak alde nabarmenarekin irabaziz eta joko ikaragarri onarekin. Horren isla benetako sailkapenean dagoen le-

kua: punturik gehien dituen taldea da, Gazte Berriak-ekin batera. Biek 29na puntu dituzte eta buruan daude. Zehaztu behar da Antsoaingo taldeak partidu bat gutxiago duela jokatu-ta, 12, hain justu, aurreko jardunaldian atsedean egitea egokituz zitzaiolako. Edozein moduz ikaragarri ongi ari dira lanean Aurrerako jokalariei eta prestatzaileak, eta emaitzak ere halakoak dira.

Gauzak horrela, jardunaldi honetan etxean hartuko duen gonbidatua, Beti Kasedano taldea, sailkapen taulan azkenaurrer dago; jokaturako 13 parti-

duetatik 8 galdu ditu, hauetako bat izan zen Ligako bigarren jardunaldi hartan, irailean, leitzarren kontra jokatu zutena. Orduan haiek etxean jokatu zuten, baina 0 eta 7 galdu zuten, alegia, Aurrerak eskuratu zituen hiru puntuak. Bestalde, Liga dagoen garaian egonda, Erriberako talde horrek mailari eutsi nahi badio, hautsi-urratua egiten hasteko tenorea ere badu, eta arerio arriskutsua suerta liteke. Aurrerari horiek guztiak agerian jarrita, beraz, leitzarrek beren lekua finkatzeko eta sustraitzeko bidea izanen dutelakoan, partidu po-

lita dago iragarrita: asko dago jokoan bi aldeetatik eta.

Aurrerako talde gazteari dagokionez, berriaz, Eguberrietako geldialdia amaitu eta aste-buru honetan dira jokoari berrekitekoak, bihar bertan, gainera. Eguesibarreko taldearen aurka ari beharrek dira,

han. Ordua zehaztekoa zegoen erredakzioa hau ixterako garaian, eguestarrek bihar goizean jokatzeko egindako eskaria baieztatzea baitzegoen.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Leitza, 100 m²-ko pisua salgai, igogailua eta trastelekuarekin. Eguzkitsua. Telefono zenbakia: 699 46 13 65.

Etxebizitza. Altzon etxebizitza bifamiliar berria salgai. 200 m²-koa. 160 m²-ko lorategia. Deitu telefono zenbaki honetara: 652 77 79 59.

LANA

Etxeko lanak. Emakumea eskaintzen da etxeko lanetarako eta haurrak zaintzeko. Telefono zenbakia: 619 68 31 83.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Irakurleen iritziak. Gure egunkarian argitaratzen diren berrien, erreportaien, elkarrizketen... inguruan, irakurleok gure iritziak, adierazpenak, esatekoak plazaratu ditzakegu. *Irakurleen iritziak* atalean ageri den zerrendan, aukeraturakoan sakatu eta idatzi zure iritzia!



AGENDA

ANTZERKIA

Tolosa. *Sobre los perjuicios del tabaco* antzezlan, Txalo Teatro konpainiaren eskutik. 20:30ean, Kultur Etxean.

DEIALDIAK

Albiztur. 2006ko festak antolatzen hasteko lehendabiziko bilera. 20:00etan, Kultur Etxean.
Amezketeta. Bide Eginez batzarra. Etzi, 12:00etan, balio anitzeko gelan.
Anoeta. Bide Eginez batzarra. Bihar, 10:00etan, Kultur Etxean.
Orendain. Bide Eginez batzarra. Etzi, 11:00etan, udaletxean.
Zizurkil. Pilates, funky hip-hop, bertso eskola, automakillaje eta erromeriako dantza ikastaroak. Izen-ematea, udal bulegoetan (943 69 30 66).
Zizurkil. Bide Eginez batzarra. Bihar, 10:00etan, Iriarte kultur etxean.

MUSIKA

Tolosa. Nuevo Catecismo Catolico eta Obligaciones. 22:30ean, Bonberenean.
Tolosa. Asgarth. Bihar, 22:30ean, Bonberenean.
Ibarra. Potemkin eta beste hainbat talde. Bihar, 22:30ean, Gaztetxean.

ZINEMA

Alegia. *Obaba*. Gaur 22:30ean eta etzi 19:30ean, zinema aretoan. Euskaraz.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
 Leiza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.
 Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre Irratia (107.5 FM - 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, agenda, albisteak, lehiaketa, disko eskainiak...
 19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 21:00-22:00. *Zaharrak berri*, Hala Bedi irratia saioa, Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren eskutik.
 22:00-23:00. *Arkako show* musika saioa.

HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Hango eta hemengo irudiak

I. MARRAZKI LEHIAKETA ▶ Leirek, Leirek, Naroak eta Unai ere egin dute marrazki bana; Villabonako, Tolosako eta Anoetako txokoak jaso dituzte haietan



VILLABONA

Leire Padilla Lopez (11 urte, Villabona).

«Kaixo, Leire naiz, 11 urte ditut eta Villabonan bizi naiz. Eliza, nire ikastola, autobus geltokia, autobusa, eta parke bat marraztu ditut».



TOLOSA

Leire Zabala Uranga (Tolosa, 11 urte).

«Asko gustatzen zait Tolosako udaletxea, Gabonetan apaingarri politak dituelako», esan digu gure lagun Leirek bere marrazkian.



ANOETA

Naroa Mendez Otaegi (6 urte, Anoeta).

«Hauxe da nire herriko plaza», kontatu digu gure lagun Naroak HITZARA ekarritako marrazkiaren atzealdean.



ANOETA

Unai Mendez Otaegi (3 urte, Anoeta).

Gure lagun Unai ere bere herriari buruzkoak margotu ditu egindako lanean: etxeak, zuhaitzak...

AGURRAK



URTE ASKOAN
 Aratz Iraeta (Bidegoian).
 Gaur 3 urte. Zorionak etxekoan partetik.

HITZA, zorion agurren
 Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, tartea, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:
HITZAren egoitzara:
 Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**
 Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**
Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!